



Esp. kodea: 2017SAPL0007

Gaia: PLENOA 2017/07/27
Hasiera eguna: 2017/07/18

AKORDIOEN LABURPENA

Udal Plenoak, 2017ko uztailaren 27a egindako bilkuran, erabaki hauek hartu dituela informatzen dut:

1.- “Arrasaten Juanito Arzamendi musika eskola birgaitzeko exekuzio Proiektua” eta proiektuan jasotako lanak gauzatzeko kontratazio prozedura arautzeko agiriak ontzat emateko proposamena.

Arrasateko Udaleko osoko bilkurak aldeko 11 boto (EAJ-PNV eta PSE-EE), aurkako 3 (Baleike eta Irabazi) eta 7 (EH Bildu) abstentzioarekin erabaki zuen honakoa:

I.- Ontzat ematea “ARRASATEN JUANITO ARZAMENDI MUSIKA ESKOLA BIRGAITZEKO EXEKUZIO PROIEKTUA”.

II.- Onartzea proiektu horri dagozkion obrak, Prozedura Irekia bidez, kontratatzeko espedientea; baita kontratua arautzen duten Administrazio Klausula Berezien eta Teknikoen Agiriak ere; horien ezaugarri nagusiak hauek dira:

- ✓ Xedea: JUANITO ARZAMENDI MUSIKA ESKOLA birgaitzeko exekuzio proiektuari dagozkion obrak.
- ✓ Kontratu mota: obratakoa.
- ✓ Prozedura: irekia.
- ✓ Aurrekontua: 6.182.247,03 €, BEZ gabe (7.480.518,91 €, BEZ barne) (erref. kont: -----)
- ✓ Egiteko epea: 20 hilabete.
- ✓ Prezioak berraztertzea: EZ dagokio.

III.- Adjudikazio prozedura irekitzea.

Arrasaten, 2017ko uztailaren 28a

IDAZKARIA

Amaia Gorrotxategi Zubizarreta